

Museoen Nazioarteko Eguna: Sagardoetxea

Non: **Astigarraga**

Lekua: **Sagardoetxea**Data: **2011/05/18**

Sarrerak: **Gratis / Doan**

Antolatzailea: **Sagardoetxea. Euskal Sagardoaren Museoa**



2011ko maiatzak 18n, asteazkena, Museoen Nazioarteko Eguna ospatzen da. Aurtengo leloa "Museoa eta Memoria; objektuek zure historia kontatzen dute" da.

Museoen Nazioarteko Eguna - Sagardoetxearean Egitaraua

Datorren Maiatzaren 18an XXXIII. Museoen Nazioarteko Eguna ospatuko da "Museoak eta Memoria" gaitzat hartuta eta Sagardoetxea Museotik "Oroimenaren zuhaitza" jarduera berezia antolatu dugu bisitari guztientzat.

Egun horretan museora bertaratzen direnek, sagardoaren elaborazio prozesu guztia ezagutzeko aukera izango dute urtaroko laborategiaren bitartez. Honela, urte sasoi bakoitzean garatu beharreko lanak (udaberria, udara, udazkena eta negua) ezagutzeko aukera izango dute bisitariak.

Bisitaren amaieran, bisitari bakoitzak bisita hoberen identifikatzen duen eta bere memorian gordeko duen hitza hosto batean idatziko du eta bisitari guztien artean eginiko ekarpenekin, Sagardoetxeako "Oroimenaren zuhaitza" sortuko dugu.

Bisitak egun osoan zehar izango dira, sagardo dastaketa izango da eta museorako sarrera doakoa izango da.

Lotura interesgarriak

- [Egitaraua \(PDFa\)](#)
- [Web ICOM](#)

[« Volver](#)